BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

206

EBAZPENA, 2015eko urtarrilaren 12koa, Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendariarena. Ebazpen horren bidez, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3 zk.ko Epaitegian 391/2014-A Prozedura Arruntean jarraitzen den administrazioarekiko auzi-errekurtsoan interesdun izan daitezkeenak epatzen dira epaitegi horretan ager daitezen.

Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3 zk.ko Epaitegiak eskatu zuen 391/2014-A Prozedura Arruntean jarraitzen ari den Administrazioarekiko auzi-errekurtsoari dagokion administrazio-espedientea igortzeko (PCA 289-2014-XXIV). Segurtasuneko sailburuaren 2014ko ekainaren 2ko Aginduaren aurka aurkeztu zen errekurtso hori. Agindu horren bidez ezetsi egin zen Ertzaintzaren lanpostuen zerrenda aldatzen duen Segurtasuneko sailburuaren 2013ko azaroaren 20ko Aginduaren aurkako berraztertze-errekurtsoa.

Hori horrela izanik, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 49. artikuluan xedatutakoaren arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

Prozedura honetan interesdun izan daitezkeenak epatzea, egoki baderitzote, 391/2014-A Prozedura Arruntean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3 zk.ko Epaitegian ager daitezen eta beren interesen alde egin dezaten. Horretarako, bederatzi egun izango dituzte, ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urtarrilaren 12a.

Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendaria,
EUGENIO ARTETXE PALOMAR.